

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARBULUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Bolatokiaren bidea ikertzeko prozeduraren ebazpena

Arbuluko Administrazio Batzarrak honako hau erabaki zuen 2021eko urtarrilaren 22ko kontzejuan:

- Bolatokiaren bidea herriko jabari publikoko lurzorua da, eta ezetsi egiten dira García Amieba jaunak ebazpen proposamenari aurkeztutako alegazioak.
- Egintza hau interesdunei jakinaraztea, bai eta dagokion errekurtsoen araubidea ere.

Egintza honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke kontzeju honi, hilabeteko epean, egintza jakinarazten denetik aurrera; edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazten denetik aurrera, berraztertze errekurtsorik aurkeztu ez bada. Aurkeztu bada, berraztertze errekurtsoa ebatzi arte itxaron beharko da.

Arbulu, 2021eko otsailaren 12a

Lehendakaria

ANA ISABEL SASIGAIN ELORZA